

2023-10-06 / 790 ZENBAKIA / 19. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



## Gogoan hartzeko Sanmielak

Eguraldia lagun, eta, herriko eragileen lanari esker, gogoangarriak izan dira aurtengo Sanmielak. Ia atsedenik gabeko bost egun izan dira / 8-11



**"Egunean Behin" denboraldi berrian, Aspillako saskia zozkatuko da "Aiurri" taldean / 2**

**Andoain etxebizitza-gune tenkatua izendatzea eskatuko dio Udalak Jaurlaritzari / 4**

**Lehen ehun egunak igarota, Andoaingo alderdi politikoei adierazpen bana argitaratu dute / 3**



## Xoxoka, jaietan

Igandera bitarte, hitzordu ugari iragarrita daude / 6-7

**erroak** • Gipuzkoako Foru Aldundia • ETORKIZUNA GRAM

### ELKAR-EKIN LANEAN: ZAINTZA PROIEKTUA

- PZ2 MENDEKO PERTSONEI GIZARTE-ERAKUNDEETAN GIZARTE ETA OSASUN ARRETA EMATEA (370 ordu)
- SUKALDARITZA MODULUA (60 ordu)
- GARBIKETA MODULUA (40 ordu)
- Oinarrizko gaitasunak (25 ordu)
- Gaitasun soziolaboralak (15 ordu)
- Praktikak enpresetan: (Gutxienez 80 ordu). Beka 9€/egun

Aurreikusitako datak: urritik martxora  
Orduetgia: 09:30 / 14:30, astelehenetik ostiralera  
Lanbide kodea: IP23200295  
Informazio gehiago: 943 47 40 83 / 722 168 951 (Estibaliz Zugasti)

**lanbide** • **Eusko Jaurlaritzaren Gobernazio Varesa** • **BETERRI BURUNTZA**

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

## Oinezkoa, bigarren mailako hori

Irailaren 18a zen, gaueko 21:00ak hortxe-hortxe. Karrikatik Sorabilla aldera korrika nindoala neska gazte bat beste espaloitik hurbildu zitzaidan. Galdera batekin gerarazi zuen nire korrikaldia:

–"Barkatu, ordu honetan autobusik ba ote dagoen galdetu nahi dizut", galdera baino gehiago, erregua zirudien.

–"Norantz zoaz?", arnasa sakon hartzen ari nintzen bitartean.

–"Donostialdera, zehazki, Lasarte-Oriara", etxera esatea bakarrik falta izan zitzaien.

–"Oker ez banago, 21:25 aldera iritsiko da Tolosatik 21:00tan abiatu dena. Bertan duzu ordutegia, erreparatu al diozu ordutegien taulari?", besoa luzatuta, geltokiko pareta seinlatu nuen.

–"Egia esan, ez dut oso ondo ulertzen ordutegi hori", latinoen artean ohikoa den hizkera apalean.

Beste espaloira igaro ginen, segidan, bus geltokia zegoen tokira. Ordutegia aztertzeari ekin nion:

–"Bai, 21:20tan pasako da bertatik. Ikusten duzu? Aste barruko ordutegian begiratu, eta Karrika jartzen duen geltokia da zurea", azkena zirudiela antzeman nuen bitartean.

barkamena eskatzen ariko balitz bezala.

–"Hara! Gainera, Karrikatik bertatik irteten da".

–"Ados, eskerrik asko!".

Nire kasa jarraitu nuen. Baina ez nengoen erabat lasai. Ordutegiak horixe zioen. Itxuraz, arazorik ez legoke. Baina busa iritsiko ez balitz? Egoera horretan zer egin lezake Lasarte-Oriara busez iritsi nahi duen gazte batek, astelehen buruzuri batean, gaueko bederatzi eta erdietan? Kezka hori banuen, eta korrika saioa zirkuitu bilakatu nuen. Karrikan barrena Txitibar plazaraino jaitsi eta handik errepide nagusitik Gaztetxe aldera igo nintzen. Hirugarren itzulian, busa iristen ikusi nuen. Eta, geltokiaren parera iristean, busera sartzeko prest zegoen neskak eta biok elkar agurtu genuen. Irribarretxo batekin, iritsi dela ospatzen ariko bagina bezala.

Zergatik kezkatzen ninduen, une horretan, egoerak? Bada, ondoko herriekin alderatuta, Andoaindik Lasarte-Oriara oinez joatea odisea delako. Eta ez da kontu berria. Honaino jabetu ez bazara, irakurle, mugakide ditugun Urnietara edo Amasa-Villabonara iristeko bi alternatiba dituzu: Trena hartzea eta oinez ekitea.

Bi kasuetan, ordu txikietan bada ere, oinez iristeko bidea eta argiztapena ondo samar bermatuta daude.

Lasarte-Oriari dagokionez, ez bata eta ez bestea.

Zer egin, beraz, autobusik ez badago, Lasarte-Oriara joan behar baduzu? Tren zerbitzurik ez dago. Eta oraino jabetu ez bazara, irakurle, oinezko bide zuzenik ere ez!

Andoaindik Lasarte-Oriara iristeko mendi bidea edo errepidea dituzu aukeran, eta bietan itzuliguru handi samarra emanda.

Andoaindik Oriara joateko bide zuzena autobidea da. Oinezkoentzat galerazita dagoenez, ezin, beraz, aukera horren alde egin. Egin proba eta sar zaiten, klik gutxitan, Googlen. Aukera bat da, Andoainen busa galduz gero, Lasarte-Oriara oinez joatea? Lehenik Urnietara joan beharko zenukeela dio *smartphone*ak, eta handik Azkorteke bidean gora Lasarte-Oriara. Denera, 9,9 kilometro eta 02:27 orduko ibilbidea. Aritmetika ariketa erraza: Karrikako geltokian busa hartzeko aukera ez lukeen neskatoa, astelehen hartan, gauerdian iritsiko litzateke helmugara.

Konturatu zara irakurle, honaino iritsita, zer den hamarkadaz hamarkada

lehenetsi den aukera?

Kamioia eta autoa. Asfaltoa eta erregai. 2023a amaitzean da eta mugikortasuna eta irisgarritasuna bezalako kontzeptuak, gurean, txiste txar baten pareko dira.

Gustu txarreko txiste, gainera. Adibide honek oraino bizi dugun klasismoa areagotzen duelako. Mugi txartelaren erabilera unibertsala da. Baina erabiltzaileak eta erabiltzaileak daude. Ikasle edo langile izanez gero, astelehenetik ostiralera oso baliagarria den zerbitzua da. Baina bada gizarte segmentu bat, zeinarentzat Mugi ez den abantailatxo, egunerokoari ekiteko nahitaezko aukera baizik.

"Beste gu" horiek, txarrena, busa galdu ezean, oinez egingo lukete bidea. Kontua da, Lasarte-Oriara oinez iristea ezinezko bilakatu dela. Halaxe gaude, ia 2024ra iritsita. Bizi dugun paradoxa ez da txikia. Andoainen N1 errepidea gaindimentsionatzeko asmoa agertu du Aldundiak. Kamioiendako aparkaleku erraldoia eraikitzean doaz, Urnietan, A15-aren ertzean. Oinezkoa, gaurkoz, bigarren mailakoa da. Halaxe doaz marrastuz gure destinu petrala.



"Enarus", bi denboraldi atzera. AIURRI

## Saria, astero, "Egunean Behin"eko Aiurri taldean

13. denboraldia abiatu da. "Aiurri" taldeko partaide izateko aukera dago, webguneko atal berezian

**Erredakzioa** ANDOAIN

"Aiurri" taldeko partaideen artean, astero, sari bat zozkatuko da. Sariduna "Aiurri" taldeko partaideetako bat izango da, ez du zertan irabazlea izan behar. "Onena" ez, baizik eta hasieratik "parte hartzailea" saritzea erabaki duelako erredakzio batzordeak. Aiurrik tokiko produktuen aldeko apustua egin nahi du. Aspillako, saskia, Arruti gozotegiko kutxa eta Mizpiradi sagardotegiko botilak zozkatu dira aurreko hiru denboraldietan. Denboraldiko lehen asteetan Aspillako saskia zozkatuko dugu. Askok ikasi, ondo pasa eta zorte on!



Ezker-eskuin, PSE-EEko, EH Bilduko, EAJ-PNVko eta Elkarrekin Podemos alderdietako ordezkariak aurreko osteguneko plenoan. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hiru hilabete igaro dira, eta "Andoain Bizitzeko" delako markaren pean, EH Bilduk zuzentzen duen gobernu taldeak lau urterako plana duela iragarri du. Egoera ekonomikoaren azterketa egiteaz gain, auzoz auzo ibili dira eta 73 neurri aurrera atera nahi dituzte. Martxan direla, finean. Honekin batera, bizitza politikoan ordezkariak duten alderdiek iritzia agertu dute. Plenoan agertu ziren hainbat aztergai, baina alderdiek biharamunean prentsa-ohar banatan zehaztu zuten beren posizioa.

#### Jeltzaleek eskua luzatu diote EH Bilduri

Jokabide eraikitzailea izaten ari da, hasiera batean, Andoaingo EAJ-PNV. Plenoan, birritan, eskua luzatzeko borondatea agertu zuten. Biharamunean ateratako oharrean ildo horretan sakondu zuten eta, era berean, zehaztasun gehiago eskatzen diote gobernu taldeari. Kritikatzeko modukoa da, baina jeltzaleek aukera moduan ikusten dute zehaztasun falta hori. Gainerako alderdiek ekarpenak egiteko aukera izan dezaketelako. Eta, ahal dela, kontutan har daitezela ekarpen horiek. EAJ-PNVren ohar oso lehen parrafoan laburbiltzen da: "Andoaingo EAJ-PNVko uste du EH Bilduk aurkeztutako gobernu programak eta alderdi berak udalerraren egoerari buruz egiten duen diagnostikoak zehaztasunik gabea eta oso lausoa dela.

# Lehen ehun egunen ostekoa

Iraileko lehen udal batzaraldian, eta biharamuneko prentsa-ohar banatan, ordezkariak duten alderdi politikoak hitza hartzen hasi dira. EH Bildu baikor ageri da, EAJ-PNV eskuak luzatzeko prest eta PSE-EE gobernu taldearekin zorrotz

Hala ere, irakurketa negatibo bat egitera mugatu gabe, jeltzaleek eskua luzatu dute elkarlanean aritzeko eta elkarrekin lan egiteko, uste baitute konkezio falta horrek elkarriketa sustatzeko eta akordioa sustatzeko bidea ireki dezakeela. Horretarako, EAJk eskatu du EH Bilduk Udaleko gainerako taldeen parte-hartzea erraztea, elkarrekin udalerrak dituen erronka nagusiei irtenbideak bilatzeko".

#### Sozialistek estu hartu nahi dute EH Bildu

Egun hauetan, haserre daudela erakutsi nahi diote gobernu taldeari. Udal batzaraldian eta ondorengo oharrean agerian utzi zuten jokabide hori. Herri bileran, egoera ekonomikoari buruz EH Bilduk egindako analisia euren aurkako kritika modura hartu dute. Andoni Alvarezek, ordea,

Basteron egin zuen agerraldian 2015-2022 urteen arteko grafikoa erakutsi zuen. Sozialisten azken agintaldiaz harago doan aroa erabili zuen, azalpenetarako. "Egoera ekonomikoa sakon aztertu ondoren, kezkatuta gaude Udalaren aurrekontuko gastu arruntaren ehuneko handia dela eta". Adierazpen horrek "harridura eta haserrea" eragin die Andoaingo sozialistek.

Plenoan, Verdasco sozialistak estu hartu nahi izan zuen Alvarez. Zehazki, Ama Kandidako etorbidearen auzian argitaratu zuten prentsa-ohararen harira. Auzia "desblokeatu" zutela zioen prentsa-oharrik. Eta hori, Verdascorentzat, onartezina da. Eta, plenoan, aurreko urteetan auziari buruz egindako lan guztia defendatu nahi izan zuen.

Bestalde, ea lanak hasita dauden galdetu zion Verdascok EH

Bilduri. Zorrotz agertu zen, horretan ere. Garabia bertan zela eta baimena emanda zegoela erantzun zioten EH Bilduko Alvarezek eta Usandizagak. Afera honetan, "azkenean garabia instalatuta dago obrei ekiteko. Denbora asko daramagu une honen zain" adierazi berri dute Ama Kandidako kaltetuak izeneko ekimenak.

#### EH Bildu, etorkizunari begira baikor

Baikor, eta ekarpenak jasotzeko prest ageri da Andoaingo lehen indarra. Hori adierazi du EH Bilduk, ohar bidez: "Lehen ehun egun hauetan gobernu sendoa osatu dugu. Lehentasunezko gaietan ekimena hartu da eta epe luzerako egitasmoak zehaztu dira. Beti dago gobernu plana aberasteko aukera, eta ate hori beti izango dugu zabalik".

## NIRE USTEZ

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

### Hartu kontrola, aukeratu rola

Udal batzaraldia Youtube bidez eskaini eta grabatzen dela baliatuta, hilabete amaierako plenoak kontrol-saio bilakatu dira. Alvarezen eta EH Bilduren agintaldia abiatu da, eta lehen ehun egunak igarota, alderdi bakoitza bere rola betetzen hasi da. Ordezkaritza gehienetik gutxienera aztertzen hasita, EH Bilduk bozeramailetza korala izango duela dirudi. Lehen plenoetan, dagoeneko, sei zinegotzik hartu dute hitza, dagokien aztergaia azaltzeko. Andoni Alvarezek protagonismo handia bereganatu du, alkate guztiek bezala. Baina honek, hasieratik, tarte zabala eman nahi die alderdikideei.

PSE-EE haserre antzera dabil, EH Bildurengan bideratuz haserre hori. Hauteskundeak irabazi eta alkatetza kendu diotenaren jokabidea dirudi. Eta, errealitatean, ez da ez bata eta ez bestea gertatu. Ama Kandidako etxebizitzaren aferan, "desblokeoa" adiera erabili du EH Bilduk. Eta, horrexegatik, sozialistak sutan daude. Haserre bera erakutsiko diote ekainera bitarte gobernuakide izandako EAJ-PNVri? Izan ere, jeltzaleek ere hitz berbera erabiltzen dute: "desblokeoa".

EAJ-PNVk soseguzko jokabidea erakutsi du, hasiera honetan. Irizpide propioa duela argi utzi nahi badu ere, aztergai nagusietan eskuak luzatuko dituela iragarri du.

Elkarrekin Podemosen kasuan, argudioak landu eta eskaintzeko garaian alderdi apalena da. Santanoren ildo bera darrai Iparragirrek.

Lehen ehun egunak igarota, ordezkariak duten alderdi politikoak egoera berriaren kontrola hartzen ari dira. Eta bakoitzak rol zehatza hartu du. Gainerakoan, arraro egin zen Goenaga eta Lainez gabeko batzaraldia. Badu horrek bere alde ona, bataren eta bestearen alderdikideek hartu behar izan zutela protagonismoa.



Giro ona nagusi zen, astelehen arratsaldean. AIURRI

## Patata-tortilla lehiaketa, asteari hasiera ona emateko

Aurreko asteburuan abiatu zen kultur artea, Hogar Extremeño. Aste osorako egitaraua prestatu dute

### Xabier Lasa ANDOAIN

Aurrera darrai Hogar Extremeño elkartearen kultur asteak. Astelehenean patata-tortilla lehiaketaren edizio berria antolatu zuten. Jaki goxoak egin zuten parte-hartzaileek, eta epaimahai-kideek ez zuten lan erraza eduki. Baina bat hautatu behar eta, Javier Garciarena nabarmendu zuten.

Aitor Perezek, Emilio Diegok eta Federico Bakaleinik osatu zuten epaimahaia.

Folklore jaialdia, marrazki-lehiaketa eta adinekoei egindako omenaldia igaro ostean, kultur astea azken txanpan da.

### Azken txanpa

#### Urriak 6, ostirala

18:00 Urdaiazpikoa mozteko ikastaroa, Jamones Rosco enpresako Uliana Novozheninaren eskutik.



Javier Garcia irabazlea. AIURRI

#### Urriak 7, larunbata

14:00 Bazkaria. 30 euroko menua.

#### Urriak 8, igandea

10:00 Migak kontzertua.

11:00 Toka txapelketa.

17:00 Sari banaketa ekitaldia eta kultur astearen amaiera.



Lehiaketako parte-hartzaileak: Javier Garcia irabazlea, Lorenzo Corbacho, Maria Lucas, Teodoro Rodriguez (elkarteko presidentea), Sonia Canales, Goyi Rodriguez, Aintzane Diez eta Jose Caballero. AIURRI

# Kaleratzeak Stop-en mozioa aurrera atera zen


Alokairuaren gehiegizko igoerak eraginda, Andoain gune tentsionatu edo tenkatua izendatzeko mozioa aurkako botorik gabe atera zen aurrera. Etxebizitza mahaia berrabiaraziko du, bestalde, Andoaingo Udalak. Hitzordua dute, urriaren 11n

### Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Etxegabetzeen aferan, Gipuzkoan auzia gehien landu duenen artean dago Marce Garcia andoaindarrak. Etxebizitza, berez, eskubide bat da. Baina arazo bilakatu da herrikide eta familia askorentzat. Ertz ugari ditu auziak, eta oraingoan alokairuaren igoera neurrigabeak eta merkatuan dagoen kopuru eskasak kezka sortzen du. Espainian Etxebizitza Legea onartu da, eta bertan udalerriak tenkatutako gune izendatzeko aukera zehazten da. Kaleratzeak Stop Desahucios elkarteak mozio bana aurkeztu du Gipuzkoako hainbat udalerritan. Andoainen, aurreko ostegunean aurkeztu zuten. Bat agertu ziren EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos. Abstentziora jo zuten EAJ-PNVk.

### Mozioaren oinarria

Auziari neurria hartzeko moduko argudiotegi gordina eskaini zuen Marce Garcia andoaindarrak: "Andoain larrialdi egoeran da, etxebizitza bat alokatzeko eskaintako higiezinaren kopurua ez baita nahikoa udalerraren eskaerari erantzuteko. 670 euroko errentan eskaintzen da, eta Etxebiden 477 familia-unitate daude izena emanda alokairu-eskatzaile gisa. Horietatik, 300 baino gehiago udalerrian erroldatuta daudenak. Etxebiden izena emandakoen artean, premia bizia duten familiak aurki daitezke, baita guraso bakarrek ere. Batzuek adingabeak dituzte ardurapean, eta independizatu nahi duten 35 urtetik beherako gazteek urteko 13.800 euroko diru-sarrerak dituzte. Alokairu-eskaintzaren arazo nabarmen baten aurrean gaude. Azken urteotan Andoainen eskaini diren alokairurako aukera urriak 650 eta 800 euro arteko prezioan daude. Horren ondorioz, merkatuko alokairu urriak ordain-



Marce Garcia, mozioa eskuetan duela. AIURRI

tzeko familia horiek egin beharreko esfortzua oso handia da. Beren hilabeteko diru-sarreraren % 56 gaintzen du, gutxienez. Gomendatutako ahalegina % 30ekoa denean".

Alokairuen igoera eta familiei eragiten dien karga handia nahikoa arrazoi dira Andoain tenkatutako edo tentsionatutako gune izendatzeko. Mozioa onartzean, Andoaingo Udalak aurrea hartu du eta Eusko Jaurlaritzati tenkatutako gune izendatzea eskatu dio.

Mozioari bidea ematea pauso bat da, ez bakarria. Izan ere, esan bezala, auziak ertz ugari ditu. Besteak beste, hutsik dauden

etxebizitzak edota turismora bideratutakoak arazo orokorren parte dira. Mozioak ere honakoa jaso zuen: "Neurri horiek beste batzuekin batera ezarri behar dira. Esate baterako, etxebizitza hutsak mobilizatzea eta erabilera turistikoko etxebizitzak edo logelakako alokairuak kontrolatzeko neurriak hartzea, alokairu egonkorreko etxebizitzek beste alokairu-eredu horietara ihes egin ez dezaten, gizarte-premiak asetzen dituztelako. Era berean, guztiz beharrezkoa da alokairu sozialak sustatzeko baliabideak nabarmen handitzea eta udalen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa".

## "Txurreria"ren oroitzapena, paretan itsatsita

Adinean gora doazenek ondo gogoan dute "Txurreria". Mendoza Escribano familiak saltokia izan zuen Kale Berriko zubiaren ondoan, trenbidearen lurrazpiko pasabideari itsatsita. 1960-1996 aldian zabalik izan zen. Burdina elkarreak garai hartako argazki erraldoia eta eserlekua ipini ditu eta, aldi berean, "Txurreria"ren historia laburbiltzen duen liburuxka plazaratu dute. Familiako seme Virgilio hurbildu zen ekitaldira. Hitza hartu zuen, biziki eskertuta agertuz ekimenaren bultzatzaileekin, baita bera agurtzera bertaratu ziren aspaldiko lagun eta bizilagunekin ere. Egitasmoa Udalarekin lankidetzan gauzatu da. Andoni Alvarez alkateak ere hitza hartu zuen.



AIURRI



Edukiontzia Martin Ugalde kalean. AIURRI

## Edukiontzia gehiago, toki gehiagotan

Gehiago eta hobeto birziklatzeko helburuarekin jarri ditu Udalak, Mankomunitatearekin lankidetzan

### Erredakzioa ANDOAIN

Arantzibia kalean, La Salle etorbidean eta Martin Ugalde kalean hondakinak botatzeko guneak berriro eta osatu dituzte, egun hauetan. Aurrerantzean, beraz, edukiontzia gehiago aurkituko ditu andoaindarrak, hainbat tokitan. Urriaren 11n, Karrika, Kaleberria 42, Makaldegia, Joakin Larreta, Agustin de Leiza, Pio

Baroja eta Bazkardo plazan gauza bera egingo dute. Ekimena Andoaingo Udalak hartu du, Mankomunitatearekin lankidetzan. Arropa, olio eta kafe-kapsulak biltzeko edukiontzien kopurua handituko da, modu horretan. Andoain eta Tolosa udalerriek Mankomunitateko biztanleriaren % 54 biltzen dute, biren artean.

## "Parketarrak" egitasmoa urriaren martxan izango da

Datorren urriaren 10ean eta 17an, Goikoplazan; 11n eta 18an, Zumea plazan

### Erredakzioa ANDOAIN

Egitasmoak familiei eta haurrei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea da xedea. Udaleko Euskara lansailak antolatuta, jardunaldi bakoitza adin tarte zehartzera zuzenduta dago. "Zabu-zibu", arratsaldeko 17:15-18:15 artean; 3 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat. "Txirrintxon", berriz, 18:15-19:15 artean; 6 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Maiztzeko hitzorduen ostean, urriaren berriro martxan da "Parketarrak". Hilabete osoan, asteartero, Goikoplazan elkartuko dira. Eta, asteazkenero, Zumea plazan. Aurretik ez da izena eman behar, nahikoa da bertarzea.

## Gau Beltza aurkeztuko dute Basteron, hilaren 9an

Larramendi Bazkunak antolatu du, Udalarekin eta herriko eragileen lankidetzarekin batera

### Erredakzioa ANDOAIN

Iaz, arrakasta handiz ekin zitzaion Andoaineko Gau Beltzaren antolaketari. Herri osoari begira antolatutako ospakizuna izan zen, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak bideratuta. Ezusteko atsegina izan zen, herritar askok parte hartu baitzuten. Eta herritarren erantzuna ona izan bazen, zer esan herriko eragileei dagokionez. Denen artean festa oparoa antolatzeko gaitasuna erakutsi zuten, eta hori bera motibagarria izan da 2023ko edizioari begira. Maizorriko txalapartariak, Lebiton konpartsa, Irunberri eta Batzokia elkarteak... Aurten, aipaturiko herri eragile horiez gain, Urki dantza taldea eta Salkin merkatarien elkarteak batu dira festara. Parte-hartze oparoa izango du, beraz, aurtengo ospakizunak. 2022ko edizioan jaiaren oinarriak finkatu baziren ere, 2023an horiek indartu eta ekimen berriak

abiaraziko dira. Datorren urriaren 9an jaiaren xehetasun gehiago emango dituzte, Plaza Morean deitu duten agerraldian. Baina dagoeneko aurreratu daiteke Batzokian prestatutako txokolate beroa dastatzeko aukera izango dela Goikoplazan, eta nahi duenak nahi adina beldur igaro ahal izango duela Kale Nagusiko Irunberri elkartearen egokituko duten beldurraren pasabidean.

Goikoplazan hasiko da ospakizuna, urriaren 31n. Eta Kale Nagusia eta Zumea kalea zeharkatu ondoren, azken traka Etxeberrieta plazan izango da. Talo jatea, besteak beste, Kotoi elkartearen kanpoaldean izango da. Jaiaren sentsibilizazio lanetan murgilduko da Larramendi Bazkuna, egun hauetan. Helburua kalez kale eta dendaz denda jaiaren berri ematea izango da. Iaz bezala, Gau Beltza ospakizun dotorea eta parte-hartzailea izan dadin.



Ugaitz Mugertza, Julen Gabirondo, Beñat Telleria eta Xabat Olaizola, astelehen eguerdian. AIURRI

## Desafio ederra, hasteko

Igandean esan zion agur San Juan plazari Mielak. Marizulora itzuli aurretik, baina, beste geldialdi garrantzitsua du egiteko: Xoxokako festak. Igandera bitarte, askotariko hitzorduz gozatzeko aukera izango dute auzotarrek nahiz ingurukoek

### Erredakzioa URNIETA

Honako proba hauetan neurtu zituzten indarrak, jaien hasiera-ko herri-kirol erakustaldian: harria jasotzen, 100 kiloko bola-ekin; aizkoran, kanaerdiko egur bat moztuz; trontzan, sei mozke-ta eginez; eta, korrika, hogeituzuli eginez. Bero egiten zuen, bero zakarra. Eta hala eta guztiz ere saio bikaina eskaini zuten. Proba guztiak kontuan harturik, Telleria eta Gabirondo izan ziren bizkorrenak. Merezitako txaloak jaso zituzten laurek.



Ugaitz Mugertza eta Julen Gabirondo. AIURRI

## Paguatarrak eta Argaratetarrak

Ostiral honetan, arratsaldeko 18:00tan hasita, *desapiyua* izango da Xoxokan. Alde batean, Paguatarrak. Eta, beste aldean, Argaratetarrak. Proben artean, trontza, ingudea, ergometroa, txingak edota sagar-biltzea izango dituzte. Ez galdu aukera!



Argaratetarrak. JAI BATZORDEA




Egaña, Iruntxiberri eta Arzallus. AIURRI

## Arzallus eta urteak bete zituen Egaña, bertso-saioan

Bertso-saio dotorea egin zuten, jaien hasieran, herri-kirolak, Adarramendi eta Iruntxiberri gogoan hartuta

### Xabier Lasa URNIETA

Urriaren 2, Xoxokako jaien hasiera eta Andoni Egañaren urtebetetzea. "Ez du esan nahi baina, sekretu bat bada", bota zion, puntuka, Arzallusek. "Ametsek sekretuak badakizki, hara!", sei zuen Egañak. "Zuk zeuk aitortut zazu, gaur urriak bi da", misterioarekin jarraitu zuen Arzallusek. "Eta gaur goizetikan zaharragoak gara", borobildu zuen Egañak.



Korrika saio egin zuen Iruntxiberri. AIURRI

### Leon Albeniz, "Iruntxiberri"

Eguerdiko bertso-saioan, ikusleen artean zegoen Iruntxiberri. Institutuzioa, herri-kiroletan. Egañaren bi bertso hauek omenaldi modukoak izan ziren: "Iruntxiberri ikuste hutsak harritu gaitu zeharo, era hontako okaza batean ez genuen bera itxaro. Miraririkan badan ez dakit, hau bada erdi milagro,

bera Sanpedron kintoa da-ta ta oraindik bizirik dago".

"Ezin liteke Iruntxiberri ze indar daukan kalkula, oraindik Leon hurbiltzen zara, bihotzez, bejondeizula. Hain nerbio eta hain urduri ez nuen ikusi sekula momentu batez uste nun trontzan berak hasi behar zula".



Paguatarrak. JAI BATZORDEA



Adi, aurtan, gau sorpresa ostegunean izango da. Argazkian, 2019koa. AIURRI

# Asteburuan, Xoxokara

Igandean esan zion agur San Juan plazari Mielak. Marizulora itzuli aurretik, baina, beste geldialdi garrantzitsua du egiteke: Xoxokako festak. Igandera bitarte, askotariko hitzorduz gozatzeko aukera izango dute auzotarrek nahiz ingurukoek

## Erredakzioa URNIETA

Aldaketekin datoz aurtan jaiak, astearte gauean egin ohi den "Gau sorpresa", ostegunera mugitu baitu Jai Batzordeak, gaueko 22:30ean, "asteburua gertuago izanik, ikuslegoarentzat egokiagoa izango delakoan". Bada, urtero jende andana biltzen duen antzerkiaren aurretik, nahi duenak zahagi ardoa izango du Xoxokako eskolan.

Zer lirakeke Xoxokako jaiak apusturik edota desfiorik gabe? Aurtengo jaietarako ere auzotarren arteko apustu berezia antolatua dute bizilagunek. Bi talde izango dira aurrez aurre, eta egin beharreko proben artean, trontza, ingudea, ergometroa, txingak edota sagar-biltzea izango dituzte. Paguatakkak eta Argaratetarrak izango dira lehian, baratzarekin lotura estua duten bi etxe, antolakuntzak dioenez: "Taldeen izena hala aukeratzek badu bere zergatia, baina jakin nahi duenak, ostiralean, arratsaldeko 18:00tan, Xoxokako plazara gertura dadila!". Jarraian, iluntzeko 20:30ean, bertso-afaria izango da Amaia Agi-

re eta Sebastian Lizasoren eskutik. Eta, eguna borobiltzeko, gaupasa egiteko aukera izango du hala nahi duenak, DJ Albarrunaren musikarekin batera.

Larunbat goizean, hamaiketako izango da Xoxokako eskolan. Urtero bezala, auzoko adinduek doan izango dute. Horren ostean, punta-puntako pentatloia izango da plazan. Alde batetik, bikotetako pentatloi txapela eskuratu zuten Nerea Arruti urnietarra eta Amalur Arbelaiz oiartzuarra izango dira. Beste alde batetik, Xoxokan aski ezagutzen duten Beñat Telleria eta Xabat Olaizola zarauztarra izango dira lehian.

Hurrek ere beren txokoa dute egitarauan. Larunbatean, egun osoan, adibidez, puzgarriak edukiko dituzte, eta, arratsaldean, txokolatada baino lehen, Gorriti izango da, urtero legez, bere animaliekin. Hari horri tiraka mus- eta toka-txapelketak egongo dira, baita karabina-tiroketa ere. Lehiaketa horiei golf-txapelketa batuko zaie, Urnietako Pitch and Putt-en zelai naturalean: "Nahiz eta golf kirolak beti izan duen aberatsei zuzenduta-

ko kirol garestiaren fama", azaldu du Jai Batzordeak, "edonork joka dezakeen kirola dela diote bertakoek, eta probatzera animatzeko aukera eder bat izan daiteke txapelketa".

Iluntzean, berriz, betizu-jatea egongo da auzoan. Urtero legez, auzoko baserri batean hazitako txekorra izango da burruntzian erreta. Ondoren, eta gauari segida alai emateko, Laiotz taldearekin dantzaldia izango da plazan. Xoxokako eskolan ere ez da musikarik faltako, izan ere, DJ Fresa Morango igoko da oholtza gainera, goizaldera arte.

Igandea izango dute auzotarrek festetako azken eguna. Meza nagusiaren ondoren, Egape

Dantza Taldeko dantzariak hartuko dute Xoxokako plaza. Arratsaldean, auzotarren arteko herri-kirol lehiaketa izango da, inguruko baserrietako sagardoa dastatu aurretik, etxeko trikitalari gazteek girotuta. Mezu argia dute Xoxokakoek urnietarrentzat nahiz ingurukoentzat: "Animatu dadila jendea! Izan ditzagun guztiok jai parekideak, askeak eta alaiak!".

# EGITARAUA

## OSTEGUNA 5

**20:30** Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan. Jatekoa bakoitzak berea eraman! Edaria doan!

**22:30** Gau sorpresa.

## OSTIRALA 6

**18:00** Apustua: Xoxokako gazteen artean.

**20:30** Bertso-afaria Xoxokako plazan Amaia Agirre eta Sebastian Lizasorekin. Tiketak Adarra, Zelai eta Guria tabernetan salgai.

**01:00** Gaupasa Albarrunaren eskutik.

## LARUNBATA 7

**11:30** Hamaiketako Xoxokako eskolan. Auzoko adinduek doan.

**11:30** Puzgarriak haurrentzat.

**12:30** Pentatloi ikuskizuna.

**16:00** Mus azkarra txapelketa Xoxokako eskolan. 15:00tan hasita, izen-ematea.

**16:00** Puzgarriak haurrentzat.

**16:30** Xoxokako lehen Putt Txapelketa. Urnietako Pitch & Putt golf zelaietan.

**17:00** Gorriti eta bere animaliak plazan.

**17:30** Toka eta karabina txapelketa Eskola ondoan. Jarraian, txokolatada haur guztientzat.

**20:30** Betizu jatea plazan. Tiketak: Adarra, Zelai eta Guria.

**01:00** Gaupasa: Laiotz.

**02:00** DJ Fresa Morango Xoxokako eskolan, goizaldera arte.

## IGANDEA 8

**12:30** Meza nagusia. Ondoren, Egape dantza taldea.

**17:30** Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.

**18:00** Sagardo-dastaketa.

**20:30** Festen amaiera.

## BUS ZERBITZUA

Geltokia: Denda Berri.

### Ostirala 6

Urnietako-Xoxoka:  
17:45, 20:00, 00:45.  
Xoxoka-Urnietako:  
20:30, 01:00, 04:00, 06:30.

### Larunbata 7

Urnietako-Xoxoka:  
16:30, 20:00, 00:45  
Xoxoka-Urnietako:  
20:30, 01:00, 05:30, 07:00.



Auzotarren arteko desafioa, 2018an. AIURRI



400 pertsona izan ziren Jai Batzordeak antolatutako bazkarian. ARGINDAR

# Gogoangarria izan da

Hasi bezala, abaila-bizian, amaitu egin dira Sanmielak. Bete-betean murgilduta izan da herria bost egunez. Hala, gora eta behera ibili da Miela, puzgarrietatik hasi, bazkarietatik nahiz kontzertuetatik igaro eta adinekoen hitzorduetara bitarte

## Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Aje emozional ederra eragin dute festek, etxetik pasatzeko denbora tarte-laburra utzi baitute aurtengo Urnietako San Miel jaiek. Eguraldia lagun, herriko kaleak jendez lepo izan dira festetan, eta gustu guztiei begirako egitaraua osatu dute, azken hilabeteetan buru-belarri lanean aritu diren Urnietako eragileek. Aspertzeko tarterik ez da izan, horrenbestez, herrian, eta hitzordu-eskaintza zabala eduki dute urnietarrek nahiz inguruetakoa herritarrek. Danbolin Txistulari Bandak eman zion hasiera festagiroari, mende Erdiko ibilbidea

soinean, suziriak zerura bota zituztenean. Bien bitartean, jaien hasiera ospatu zuten txosnagunean, txupinazo bereziarekin, igandera bitarte, Pintore kalea gozamenerako txokoa izango zela iragartzeko.

Bai asteazkenean, bai ostegunean, herriko taldeek oholtza gainera igotzeko parada izan zuten txosnagunean, herrian sortzaile-eskaintza zabala daganaren erakusle: Dj Karlos Salvatrutxa, Nahi eta Ezin, Lappa, Dj Albabarruna... Olinpiar Jokoak zuzen-zuzenean ikusteko aukera izan zen ostegunean; hala, askotariko kirolez jantzi zen txosna-

gunea, iluntzeko pintxo-lehiaketan: korrikalariak, jabalina-jaurtitzailak, boxealariak, tenistak...

Festen lekukoa hartu zuten etxeko txikienek irailaren 28an, Haurraren Egunean. Irati Aierdi Ziaurritz eta Asier Montes Roman alkate-txiki izendatu ostean, Plisti Plasta ekojolasekin, Real Fundazioaren puzgarriekin, erraldoiekin nahiz buruhandiekin jolasteko aukera izan baitzuten. Disko-festa izan zuten, ondoren, arratsaldean, Go!azeneko kideen eskutik.

Kirol-erakustaldiek indar berezia izan dute festetan, esaterako ostiral arratsaldean. Herri-

## Aurtengo pregoilarien adierazpena

"Uso xuria errazu". Hori zen txistuarekin jotzen ikasten zen lehenengo kanta. Bizpahiru kanta gehiago ikasi, eta berehala ziren Urnietako lehen txistulariak kalejiran. 50 urteko bidean, asko izan dira txistuarekin kalera atera diren urnietarrak. Batzuk gaur udaletxeko balkoian elkartu gara, baina beste asko falta dira. Denek jarritako aleari esker du gaur txistuak herrian duen tokia.

Lehen alea Juxto Egañak erein zuen. Erein ez ezik, ureztatu ere bai, berak txistulari, irakasle eta sustatzaile gisa egindako lan izugarriarengatik ez balitz, txistuak ez luke gaur arte iraungo. Beraz, eskerrak ematen hasita, aurren-aurrena berari eman behar, bera gabe txistuak ez zuelako aurten mende erdi beteko eta agian txistulari bandarik ere ez genuelako izango herrian. Antton Jauregiri ere bai, noski, berak hartu duelako bandaren lema eta kantu berriak sortzeko eta txistua beste maila batera igotzeko egiten duen ahalegin ikaragarriarengatik. Gaur hemen bildu garenok gutxi batzuk garen arren, asko dira Txanbolinetik pasatu diren urnietarrak. Eskerrik asko gurekin lan egin duzuen guztioi.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Edu Muruamendiari eta Egape dantza taldeari ere, doinu zahar eta berriei gorputza eta arima jartzeagatik. Gurekin batera jotzen duten musikariei, Anabasi, tronpeta joleei, Kantazauneko kideei eta abar, gure saioak kolorez eta erritmoz jantzeagatik. Udalari, ematen digun laguntzarengatik. Jai Batzordeari, eta publikoari, zuei, jakina, entzulerik gabe gure lanak ez luke-eta zentzurik izango. Azkenik, nola ez, gure familiei, firin-farin ibiltzeko eskainitako denboragatik.

Jarrai dezagula denok elkarrekin beste hainbat urtean herrian musika jartzen. Gora Txanbolin! Gora Urnieta! Gora sanmielak!

kirol erakustaldia izan zen, eta, besteak beste, Nerea Arrutik eta Beñat Telleriak hartu zuten parte, harri-jasotzean zein aizkoran. Musika-hitzorduei eman zioten lekukoa, ondoren. Hala, gainezka egin zuen San Juan plazak, Neomak taldearekin edota DJ LaMia Marirekin, asteburuari ongi-etorria emateko.

## Larunbata, egun jendetsua

Hiru jai-egunetako nekearekin iritsi ziren larunbatera urnietarrak, baina ez zen inondik inora ere oztopo izan festa giroarekin jarraitzeko. Indarrak soberan zituzten herrikideek eta horren adibide, eguerdian, herriko zenaibait plazatan antolatutako bazkariak: kolore berdez estali zen San Juan plaza, Berdeak zein Etxeberri elkarteak antolatutako otorduan. Era berean, emakume kuadrillen bazkariak ere gozatzeko aukera izan zen, eta, kamiseta gorria jantzita, 400 gazte

bildu ziren txosnagunean, Jai Batzordeak deitutako paella-jatean. Txarangaz gain, Urdanborren erakustaldiak jende askoren arreta erakarri zuen Idiazabal kalean barrena, gaueko musika-hitzorduei ekin aurretik.

Gaupaseroen oheratzeko gogo murrizak eman zion hasiera jaien azken egunari. Hala, ajeak eta eztarri urratuak samurtu zituen Kantazaunek, bertso-bazkariarekin. Aurten, tamalez ez da dantza-sokarik izan, jende falta medio. Dena dela, gozotik igaro zuten igandea urnietarrek, txekor-jate solidarioarekin, sagardo-dastaketarekin nahiz Iratzer erromeriarekin. Iluntze partean, zezen-suzkoa atera zen San Juan plazara, makina bat herritarrekin batera Mielari agur esateko. Indarrak hartzea tokatzen da orain, Sanmielei agur esan badiote ere festak ez direlako amaitu urnietarrentzat. Hemen dira-eta Xoxokako jaiak.

www.aiurri.eus



Jaien jarraipena,  
egunez-egun





Askotariko bazkariak izan ziren herrian, larunbatean. ARGINDAR



Itxura eta mamia, primerakoa! AIURRI

## Euskal-extremeño pintxoa, onena

Ogi xigortua, pikillo krema eta onddo xerra. Gainean haragi takotxoa eta tipula frijitua. Carlis Roscok eta Marta Mandayok goi mailako pintxoa egin zuten. Eta, ondorioz, lehen saria eskuratu. Zorionak!



Berdeak taldeko kideak. ARGINDAR



Jendetza bildu zen Oianumeko hitzorduan. ARGINDAR



Aurtengo kamisetarekin, Poxta Zaharren 20 urteak ospatu dituzte. ARGINDAR



Adin guztiei begirako jaiak dira Sanmielak. ARGINDAR




Eguraldia lagun izan zuten larunbatean. ARGINDAR



Danbolin Txistulari Banda, udal ordezkariekin. AIURRI



Nerea Arruti urnietara. AIURRI



Beñat Telleria, harri-jasotzean. AIURRI



Harrera ederra izan ohi du danborradak. AIURRI



Jendez bete zen eliza, danborradaren burrunba entzuteko. AIURRI



Festetan sekula hutsik egiten ez duen eragilea da Kantazaun. AIURRI



Egape Dantza Taldeko kideak. AIURRI



Gau olinpikoaz gozatzeko aukera izan zuten urnietarrek ostegunean. AIURRI



Igeriketa, judo, errugbia... Makina bat kirolari bildu zen txosnagunean. AIURRI



Iratzar erromeriak agurtu zituen festak, igandean. AIURRI



Sobietar Batasuneko saskibaloit-taldea. AIURRI



Buruhandiak eta erraldoiak. AIURRI



Suziriak, Danbolinen eskutik. AIURRI



Etxeko txikienei ongi-etorria. AIURRI



Txaranga jendetsua, Aldapeta kalean. AIURRI



Mende Erdiko ibilbidea soinean, Danbolin Txistulari Bandak bota zuen txupinazoa. AIURRI



Brindisarekin ekin zitzaion festari, asteazkenean. AIURRI



Aiurri.eus gunean dozenaka argazki daude ikusgai. AIURRI

# Denboraldi berrirako, prest

**ESKUBALOIA** Andoaingo Leizaran eskubaloia taldeak denboraldi berriko aurkezpena egin zuen, jendaurrean. Talde-izaera indartzeko ekitaldia izan zen, denboraldiari ilusio eta gogo gehiagorekin ekiteko

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Leizaran eskubaloia klubak bere talde guztien aurkezpen ofiziala egin zuen Allurralde kiroldegian, aurreko ostiralean antolatutako ekitaldi zainduan. Datuak ikusgarriak dira: 233 jokalaririk guztira, 14 taldetan banatuta eta 39 lagunez osaturiko talde tekni-

koaren esanetara. Zenbakiez harago, kideak sustatu nahi du klubak. Eta, aurrekoan, norabide horretan, bete-betean asmatu zuten. Ekitaldian, eskubaloiko jokalariek elkarren artean giro bikaina, eta, eskubaloian egunez egun hazten joateko gogoia eta ilusioa helarazi

zizkieten harmailak bete zituzten zaletuei.

## 2023-2024 denboraldia

Hona zein talde ariko diren lehian, eta nortzuk izango diren horien prestatzaile teknikoak:

- Infantil neska (Leizaran Oreka Market): 16 jokalaririk; talde tek-

nikoa: Gorka Matute, Iker Beloki eta Aieko Barandiaran.

- Infantil mutila (Horia): 18 jokalaririk; talde teknikoak: Andoni Arando, Edurne Beroz eta Saioa Ezeiza.
- Infantil neska (Urdina): 15 jokalaririk; talde teknikoak: Olatz Olmedo, Migel Angel Martinez eta Liher Agudo,
- Infantil mutila (Urdina): 18 jokalaririk; talde teknikoak: Jose Antonio Gutierrez, Manex, Unai Peñalvo eta Markel Rabadan
- Kadete neska (Horia): 14 jokalaririk; talde teknikoak: Jose Manuel Manero, Amaia Muñoz eta Telmo Etxeberria.
- Kadete mutila (Horia): 19 jokalaririk; talde teknikoak: Luis Sobejano, Eñaut Egaña eta Aimar Milla.
- Kadete neska (Txuria): 14 jokalaririk; talde teknikoak: Izaro Xanbu, Naroa Zozaya, Iker Oruezabala eta Yona Navas.

- Kadete mutila (Urdina): 18 jokalaririk; talde teknikoak: Fernando Duarte, Iosu Etxeberria eta Hodei Etxeberria.

- Kadete neska (Urdina): 14 jokalaririk eta talde teknikoak: Ekaitz Etxeberria, Julen Callejon eta Aitor Merino.

- Jubenil neska (jubencil): 17 jokalaririk; talde teknikoak: Xabier Etxeberria eta Arkaitz Amenabar.

- Jubenil mutila (Jubenil): 17 jokalaririk; talde teknikoak: Iñigo Sarasola eta Roberto Brosa.

- Senior mutila (Senior 2, lurraldea): 17 jokalaririk; talde teknikoak: Valentin Moreno eta Irene Requeijo.

- Senior mutila (Leizaran Ernio Inmobiliaria): 18 jokalaririk; talde teknikoak: Xabi Amiano eta Alejandro Colorado.

- Senior neska (Senior Euskal Liga): 19 jokalaririk; talde teknikoak: Oscar Izagirre eta Maite Lazkoz.

## Bankoa-DV txapelketa

Belokik eta Altunak ezin izan zuten askorik egin Egiguren-Bernaola bikotearen aurka (6-22), Arraten jokaturako partidaren. Hasiera batean, nahiko parekatuta hasi zen partida, baina, markagailuak aurrera egin ahala, aurrean asmatzeari utzi zion Altunak eta, atzealdean, Belokiri eskua kargatu zitzaion. Ohi bezala, Egigurenek maila ona erakutsi zuen.



GAZTELEKU

## Aranguren eta Zuriarrain

Andoaingo Txirrindulari Eskolako Irati Aranguren eta Xabat Zurriarrain txirrindulariak Xixonen izan dira, berriki. Espainiako ziklokross txapelketa jokatu zen eta Irati Aranguren laugarren postuan helmugaratu zen. Xabat Zurriarrain ere fin aritu zen, 46. postuan sailkatuta. Andoaingo txirrindulariak urte osoan maila bikaina eskaintzen ari dira.



ANDOAINGO

## Leizaran, garaile

Andoaingo Leizaran Ernio Inmobiliariak Urnieta Artola Harategia taldearen aurka jokatu zuen, iragan asteburuan. Derbia andoaindarrek irabazi zuten, 24-30. Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia izan zen, senior mailakoa. Partida oso parekatua egon zen hasieratik, baina, azken txanpan, andoaindarrek nagusitu ziren.



UKE

## Igoera balio duen gola

Iker Hernandez urnietarra munduan barrena ari da, futbolekin. Ameriketara ibili ondoren, Espainiako talde ezberdinertan aritu da. Berriki, Vestri FC Islandiako bigarren mailako taldean, Lehen Mailarako igoera balio duen gola sartu zuen, play-offeko finalean. Pozarren dago urnietarra, eta baita hura maite duten lagunek ere.



IKER HERNANDEZ



AIURRI

## Gazte erronka, Andoainen

Andoaingo herriko gaztetxoak ikasgeletatik atera eta adinkide diren gainerako herrikideekin Gazte erronka izeneko ekimenan parte hartu zuten, aurreko astean. Udaleko Gazteria eta Euskara sailek sustatuta, herriko hiru ikastetxeetako ikasleek parte hartu zuten.

Hots, Aita Larramendi ikastolako, La Salle Berrozpe ikastetxe eta Leizaran Institutuko DBH1 eta DBH2 mailako gazteek. Hainbat kirol probatan jardun ziren, goiz atsegina igaroz. Partaide bakoitzak, gainera, ekimenari loturiko kamiseta eraman zuen opari modura.

Ariketei ekin aurretik, jardunaldiaren aurkezpena egin zuten Andoni Alvarez alkateak eta Marta Lasa Kultura eta Hezkuntza saileko zinegotziak. Euskara eta ariketa fisikoa uztartzea da xede nagusia. Denontzat gimnasioko ordezkariak gidaturiko saioa izan zen.

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 5

**ANDOAIN Kultur Astea**

Hogar Extremeñoren eskutik, marrazki-lehiaketa.

17:00, *lehiaketa*.

18:30, *txokolate beroa. Elkarte*.

**ANDOAIN Zozketa**

Salkin elkarteak antolatuta, erosketa egiten duten erosleen artean 2500 euroko balioa duen bidaia zozkatuko da.

Parte hartzeko epea: *Urriak 13*.

**ANDOAIN Jabekuntza eskola**

Elektrizitate lantegia. Izen-ematea Berdintasun sailean eta Atarian.

17:00-20:00, *Urriain*.

*Urriak 5, 19, 26*.

**ANDOAIN Parte-Hartzea**

Andoaindarrek erabakiko dute, 2024ko aurrekontutik, 250.000 euro zertara bideratu. Parte hartzeko aukera zabalik da, 16 urtetik gorakoentzat.

*Azken eguna: Urriak 6*.

**ANDOAIN Basterok 20 urte**

Adierazpena eta DJ Ezekiel.

Kultura manifestuaren irakurketa, herri eragileen laguntzaz...

19:00, *Plaza Morea*.

## OSTIRALA 6

**ANDOAIN Kultur Astea**

Hogar Extremeñoren eskutik, Urdaiazpikoa mozteko ikastaroa, Jamones Rosco enpresako Uliana Novozheninaren eskutik.

18:00, *elkarte*.

**ANDOAIN Basterok 20 urte**

Udal Musika Eskolatik ateratako bi talderen emanaldia:

19:00, *Goikoplaza: Ttottekustik*.

20:00, *Zumea plaza: Fino's band*.

**ANDOAIN Parte-hartzea**

Andoain.eus webgunearen atal berezian sartuz, edo udalerrian barrena aurki daitezkeen hautes-ontzietan proposamen idatzia sartuz, partaidetzazko aurrekontuetan proposamena luzatzeko aukera dago. 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

*Azken eguna*.



**URNIETA** Auto klasikoen ibilaldia

Auto klasikoz jantziko da herrigunea, igande honetan. Izan ere, "Urnietako auto klasikoen V. Ibilaldia" antolatuta du Xoxoka Motor Klubak. Idiazabal kalean egongo dira autoak, goizeko 09:00-11:30 tartean. Ondoren, bana-banan aterako dira eta eguerdiko 14:00ak aldera itzuliko dira.

*Urriak 8, igandea. 09:00-11:30, Idiazabal kalea.*

## LARUNBATA 7

**ANDOAIN Kultur Astea**

Hogar Extremeñoren eskutik, bazkaria. 30 euroko menua.

14:00, *elkarte*.

## IGANDEA 8

**ANDOAIN Kultur Astea**

Hogar Extremeñoren eskutik, azken txanpa.

10:00 *Migak kontzertua*.

11:00 *Toka txapelketa*.

17:00 *Sari banaketa ekitaldia eta kultur astearen amaiera*.

## ASTEAZKENA 11

**ANDOAIN Jabekuntza eskola**

Kosmetika tailerra. Izen-ematea Berdintasun sailean eta Ataria arreta zerbitzuan.

17:00-20:00, *Urriain*.

*Urriak 11, 18*.

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Golpe de suerte**

Ig, 8. 19:30.


Astl, 9. 19:30,

22:00.

**Richard la cigüeña y la joya perdida**  
Ig, 8. 17:00.

**Mapa**

Ostg, 12. 19:30.



## SINOPSIS

**Golpe de suerte**

**Zuzendaria:** Woody Allen. **Aktoreak:** Lou de Laâge, Niels Schneider, Melvil Poupaud, Elsa Zylberstein, Valerie Lemercier,...

**Herrialdea:** Frantzia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, komedia, erromantikoa. **Iraupena:** 96 min.

## Intriga, emozioa eta umorea

Fannyk eta Jeanek senar-emazte ideala dirudite: biak lan munduan egoera bikainean, apartamentu eder batean bizi dira Parisko auzo eksklusibo batean. Elkar ezagutu zutenean bezain maiteminduta dirudite. Baina Fanny Alainein, institutuko lagun ohi batekin,

ustekabean gurutzatzen denean, seko maiteminduko da. Laster berriro elkar ikusten dute eta gero eta hurbilago daude... Intriga, emozioa eta umorea Woody Allenen estiloan. Bere azken filmaren estreinaldia Andoaingo Basteron ikusi ahal izango da.



andoainDARRA  
euskaraz



# "600 bat lagun helduko dira Urnietara larunbatean"

MIKEL ALBERDI DENDA BERRI

Urnietan ospatuko dute urteko egunik handiena Gipuzkoako Pentsiodunek eta Jubilatuek, datorren larunbatean, Denda Berri elkarteak antolatuta

**Xabier Lasa URNIETA**

Herrialdeko elkarteak biltzen dituen AGUIJUPENSEko 600 bat lagun bilduko dira Urnietan, Denda Berri antolatu duen jai-egunean. Mikel Alberdi elkartearen lehendakariak azaldu digu ospakizunaren nondik norakoak.

**600 lagun biltzea espero duzue.**

Bai, Gipuzkoako bazter guztietatik helduko dira pentsiodunek eta jubilatuek Urnietara. Marea zuria izango da, guztiak elastiko zuriarekin helduko baitira. Egun polita espero dugu izatea, eta horretarako ahalegintzen ari gara azken aldian.

**Marea zuria aipatu duzu. Urnieta aztoratzeko modukoa izango al da?**

Autobusetan ehunka lagun helduko dira, eta horrexegatik, urnietarri eskaera berezia helarazi nahi diegu, jakitun izanda kanpotik etorritako ehunka pertsonen presentziak endredoren bat edo beste eragin deza keela bertakoen egunekotasunean. Alegia, mesedez, abegi onez joka dezatela kanpotar horiekin, normalki egin izan duten moduan.

Hainbat gipuzkoarri Urnieta ezezaguna egiten zaienez, iruditzen zaigu ekitaldi aproposa izan litekeela bertan egun-pasogozagarria igaro dezaten, eta oroitzapen polita eraman dezaten. Denda Berriko kideek garrantzitzat jotzen dugu Urnieta eta urnietarren irudi atsegina, jatorra zabaltzea larunbateko ospakizunaren eskutik.

**Azalduko al diguzu egitaraua?**

San Juan plazan goizeko 11:00etan egingo da bilkura nagusia. Al- dundiko eta herriko agintarien parte-hartzearekin harrera egingo zaie parte-hartzaile guztiei, eta besteak beste, Fermin Argiñarena bertsolariak ongi-eto- rriko bertsoak kantatuko dizkie. Bosko Anitzeko txarangak giro- tuko du goizeko bilkura hori. Lehen harrera hori dena buka-



Mikel Alberdi, Denda Berri elkartearen egoitzan. Elkarrizketa osoa: aiurri.eus. AIURRI

tuta, ibilaldia abian jarriko da, eta sei bat kilometroko ibilbidea egingo dute, Urnietan barrena. Ibiltarien tropela San Juan plaza 12:30ak aldera iritsiko dela espero dugu. Bertan, Txanbolin-eko txistulariek eta Kantazau- noko abeslariak emanaldia eskainiko die. Eta ondoren, baz- karia zain edukiko dute, Egape ikastolan. Bertan, trikitalariekin dantzaldia izango da, eta tartean,

gure bazkide den Agustin Garcia nabarmendu nahi genuke. **Zehaztuko al zeniguke ibilaldia?** San Juan plaza abiapuntutzat hartuta, Plazido Mujika eta Den- baberritik igaro, eta gero, Ber- rasoeta parketik, Lekunetik eta Plazaolako bidetik barrena, Ergoien industrialdera iritsiko da. Iruraingo gainean, errepidea gurutzatu, eta Egoien auzotik doan bidegorriari helduko dio.

Erratzu industrialdea igaro, eta berriro Urnietarantz joango da. Renfeko trenbidea Langarde- gainako horretan azpitik pasa, eta Ermotegitik igarota, San Juan plazara itzuliko da.

Ibilbidean barrena, bi puntutan, Iparla eta Iturbe altzaria- keko parean zehazki, berezi- berezia den busa ipiniko da, berarekin zortzi-hamar bainu- komun baitauzka; horrela, ibil- tariak, egin beharrekoak egin ahal izango dute. Bestalde, mo- kadutxoa hartzeko aukera ere edukiko dute ibiltariak, Iturbe altzariaren inguruan.

**Agustin Garcia Dendaberriko baz- kidea omentzeko asmoa daukazu.**

97 urteko "gaztetxoa" da. Gizaki zoragarria da, onbera, alaitasu- na nonahi transmititzen duen horietakoa. Ez du galtzen egu- neroko martxa: goizez, paseotxoa egiten du Urnietan barrena, eta arratsaldean, Denda Berrira etortzen da; bere kafetxoa hartzen du eta lagunekin kartetan aritzen da. Lehengoan, omenaldi xumea- ren asmoa aipatu genionean erantzun zigun jada zahartu dela eta opariak baino gehiago, giza- kien keinu goxoak estimatzen dituela. Hori bai, zerura begira jarri, eta sekula galtzen ez duen umorea erabiliz, erantzun zigun goikoari baimena eskatuko dio- la bazkarian agertzeko.

**Denda Berriatik Gipuzkoako pen- tsiodunen eta jubilatuen egun han- dia antolatzera animatu zarete. Nola ikusten duzu osasunez, elkarteak?**

Osasuntsu esango nuke, are gehiago Denda Berri eraikin berrian jarri garenetik. 550 bat bazkide osatzen dugu elkarteak, egun. Ekimen ugari antolatzen dira denboraldian barrena baz- kideak dinamizatzeko asmoz, eta modu iraunkorrean, une honetan honako taldeek funtzio- natzen dute: memoriaren lan- ketarako hiru talde, joskintzan bost, zunban bi, eta, sebillanekin bat. Bestalde, oinarritzko euska- ra ikasteko taldea sortzeaz gara oraintxe, eraikinean bertan AEKren egoitza egoteak erraz- tuko digu asmoa. Gaur egun, Angelita Ugaldek, Juanito Peña- garikanok, Rosa Gonzalezek, Maribi Rodriguezek, Tomas Her- nandezek eta seiok osatzen dugu zuzendaritza batzordea. Ondo moldatzen gara, baina ez gaude betirako, eta etorkizunak kezka pittin eragiten dit, ikusita nola ari den jaisten nabarmen lan altruistetarako inplikazio maila.

## ZORION-AGURRAK



URNIETA  
**Zorionak Jokin**  
Hamaika urte bete dituzu.  
Zorionak eta gozatu etxekoekin.

### Urte askuan!

- [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)  
Zorion agurra atalean.
- **Whatsapp bidez:**  
619 16 35 37
- [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:**  
943 300 732.

## Ataria herritarren arreta zerbitzuaren ordutegi berria

Urria hastearekin bat, neguko ordutegia berrezarri dute Bas- teron. Ordutegi berria:

- Astelehena, asteartea, asteaz- kena eta ostirala: 08:00 / 14:30
- Osteguna (ordutegi jarraia): 08:00 / 17:45

## Abendura atzeratu dute Golden Apple Quarteten emanaldia

Golden Apple Quarteten "Vamos que nos vamos" ikuskizuna urriaren 4an eskaintzekoa zen, Saroben. Azken orduan, ordea, konpainiak abenduaren 10era atzeratu du agurreko biraren aurre-estreinaldia.

## ODOL-EMAILEAK

### HITZORDUA

**Urriak 9, astelehena.**  
16:30-20:30.  
ANDOAIN,  
Anbulatorioa  
Hitzordua hartzeko:  
943 007 884.



## MERKATU TXIKIA

### ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

### PARTE HARTZEKO

[diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)  
619 163 537 - 943 300 732



Urnietako  
udala



Urteurrena izanik, agurra dantzatu zuten Esne Beltza taldeko kideek. Haiekin batera ziren Amak taldeko kideak. Agurra dantzatu aurretik, auditoriotik kalera kalejiran irten ziren artistak. Jendea zain zuten Plaza Morean. AIURRI

# Urteurreneko festa, dantzan eta kantuan


Esne Beltza taldeak erakustaldia eskaini zuen, Basteroren irekieraren hogeigarren urteurrenean. Askotariko musika eta erritmoak uztartu zituzten emanaldi osoan. Dena eman zuten, eta ikusleek gogo bizi hori txalotu zuten

## Erredakzioa ANDOAIN

Urriaren 3a egun seinalatua da, Basteroren historian. Irekiera egun hartan egin baitzuten, 2003an. Hogei urte gerogago, efemeridea kultur ospakizun berezien abiapuntu bilakatu da. Hasiera bizia eta indartsua izan zen, asteartekoa. Esne Beltzak erakustaldia eskaini zuen, auditorioa erritmoz eta doinu bezetaz. Lagun talde handia da, eta okasiorako Amak taldekoe-kin are gehiago bete zuten taulagaina. Musika erritmo garai-kideak uztartzen maisu bilakatu dira Xabi Solano eta konpainia. Kantari eta dantzari taldearekin, gainera, ikusgarritasunean irabazi dute. Bertaratu zirenek maila handiko saioaren lekuko izan ziren.



Izerdi patsetan blai amaitu zuten. AIURRI



Eneko "Okene" eta Mikel Abrego anaiaik. UDALA

## Zorion mezuak, bideo bidez

Andoaingo Udalaren Youtube kanalean bideo-sorta eskegi dute, eta bideo bakoitzean kulturarekin zerikusia duten pertsonak eta herri eragileak ageri dira. Besteak beste, Alberto Agirre abesbatza, Udala Musika Eskolako irakasleak, Kultura batzordeko kideak eta langileak, Axeri Dantzako kideak, Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsa eta Hogar Extremeño elkarteak, Ixiar Oreja, Garazi Kamio, Ion Beloki, Jone Larrañaga, Ane Jalon, Eneko eta Mikel Abrego, Mikel Moreno, Iker Valle, Pilar Rodriguez, Porrotx eta Marimotots pailazoak, Amak taldea.

### "Argazkiak eta objektuak" erakusketa

Urriaren 16an, arratsaldeko 18:30ean hasita, Basteroko urteurreneko erakusketa zabalduko dute. Itxaso Mendiluzeren gidaritzapean, hogeituroko ibilbidea gogoan hartuko dute. Horretarako, argazkiak eta objektuak ikusgai ipiniko dituzte.

Ekitaldi nagusia azaroaren 3an izango da. Kultur eragileek eta gonbidatu bereziek protagonismo berezia hartuko dute.